

## ERANSKINA

**Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 2ko 2/2012 Lege Organikoaren betetzea. Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua.**

### ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- Azaroaren 14an argitaratutako jarraibidea, finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako 2020ko toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan, onartzen duena.

### **Aurrekontu egonkortasunaren helburua.**

Europako Kontabilitate Sistemari jarraiki, 1. kapitulutik 7. kapitulura arteko sarreraren aurreikuspenen eta 1. kapitulutik 7. kapitulura arteko gastuen aurreikuspenen arteko alde positiboa, termino kontsolidatuetan.

Halabaina, Diruzaintzako Gerakinaren bidez finantzatutako aurrekontu aldaketek, egonkortasun helburua ez betetzea eragingo dute. Kasu horietan, baldintzak batzuk betez gero, Gipuzkoako Toki Entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak xedatzen du, ekonomia-finantza planaren ordezkari izango dela udalbatzarrari komunikazioa helaraztea, finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzen duen Kontu-hartzailearen txostenarekin batera.

### **Gastuaren araua.**

Sektore Publikoa osatzen duten entitateek bete beharreko gastu helburua izango da, 2019 eta 2020ko urteen artean gastu konputagarriaren bariazioa %2,8 baino handiagoa ez izatea. Aurrekontu egitasmoak betetzen du aipatu helburua, baina kontuan izan 2019ko aurrekontuak izaera hedatzailea zuela. Edonola ere, aipatu helburua aurrekontu likidazioan ziurtatu behar da, 1/2013 FA-k xedatzen duen moduan. Likidazioan ez betetzea ematen bada, Udalak Ekonomi-Finantza plana onartu eta aplikatu behar du gastu arauaren mugak betetzen direla ziurtatzeko.

Arauaren kalkulurako, hirigintza kudeaketatik eratorritako diru-sarrerak, Galarreta eremua garatzekoak, diru-sarrera finalista izaera dute.

Hori horrela, aurreko ataletan esandakoaren haritik, gastuaren hazkundera egonkorra ez izatea ezinbestekoa da aurrekontuaren jasangarritasuna bermatu ahal izateko, bestela, gastu araua ez betetze egoeran egon gaitezke, hau da, Ekonomia finantza plana onartu eta tramitatu beharra, gastuaren hazkunde kontrolatutako egoeran murgilduz..

### **Zor publikoaren helburua.**

Honen arabera, abenduaren 31ko zor bizia, likidatutako sarrera arrunten %72 baino (2020 urtean %70) txikiagoa izan behar da, betiere datu kontsolidatuetan. Hernaniko sektore publikoan betetzen da.

### **Garbitania Zero Zabor SL**

Hernaniko Udalak Garbitania Zero Zabor sl enpresa publikoan %49,9ko partaidetza du.

Erakundeak betetzen ditu 2/2012 Lege organikoa arautzen duen egonkortasunari buruzko helburuak:

- Erakundea finantza orekan dago, (Martxoaren 22ko Administrazio Kontseiluan onartutako Galera Irabazien kontua).
- Ez dauka epe luzeko zorrik.



Hernaniko Udalaren aurrekontu orokorra-2020  
Finantza eta ekonomi txostena

## SUPERABIT HELBURUA

	Udala	Zerb Sozialak	Ereñotzu	BATERATUA
	<b>366.000</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>366.000,00</b>
Sarrerak 1-7	29.539.159	8.810.264	395.907	35.715.431,00
Gastuak 1-7	29.173.159	8.810.264	395.907	35.349.431,00

## GASTU ERREGELAREN HELBURUA

**-2,79%**

LEGEZKO MUGA (2020 urterako):

**2,80%**

**Gastu konputagarria 2019:**

**30.474  
.749**

**2020 datuak:**

Gastu ez finantzarioak:	35.349.431,00
interesak(-):	-6.500,00
Finantzaketa lotua duen gastu arrunta(-):	-4.966.306,00
Finantzaketa lotua duen kapital gastua(-):	-8.500,00
SEC doiketak:	0,00
Araudian egindako aldaketak(-):	-744.174,00
Fondo Forala igoera:	666.613,00
Tasa igoera:	77.561,00
Beste sarrera bereziak:	0,00

**Gastu konputagarria-2020: 29.623.951**

Gastu muga-2020: 31.328.042      margena: 1.704.091

## ZOR HELBURUA

**1,00%**

LEGEZKO MUGA (2020rako):

**70,00%**

Zor bizia 2018-12-31: 721.422      2,04%

Amortizazioak: 366.000

Mailegu berria 2020: 0      0,00%

Guztira Zor bizia 2020-12-31: 355.422      1,00%

Eskubide likidatuak 2017: 35.398.183

Hernani, 2019ko abenduaren 9a  
KONTU HARTZAILEA